

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

NEKAZARITZA SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 16/2023 Foru Dekretua, maiatzaren 2koa. Onestea abeltzaintza ustiattegietan plaka fotovoltaikoetatik datorren energia berriztagarria autokontsumitzeko eta biltegitzeko laguntzen programaren oinarri arautzaileak eta laguntzen 2023ko deialdia

Arabako Batzar Nagusiek adostutako maiatzaren 29ko 55/2022 Mozioa betez, klima erronka globalari premia aurre egiteko konpromisoa hartuta, kanpoko karbono aztarna, kontsumoa eta energia mendetasuna murriztuz energia berriztagarriko eta energia efizientziako proiektuak bultzatuz, honako deialdi hau eta oinarri arautzaileak ezartzen dira, lehen sektorearen beharrak asetzeko.

Deialdia prestatzeko, kontuan hartu dira Emakumeen eta Gizonen Berdintasun Eragingarri-rako martxoaren 22ko 3/2007 Legea, Euskal Autonomia Erkidegoko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legea eta Emakume Nekazarien Estatutuaren urriaren 15eko 8/2015 Legea.

Horren ondorioz, Nekazaritza Saileko foru diputatuak proposatu eta Foru Gobernu Kontseiluak gaur bertan egindako bilkuran aztertu ondoren, honako hau,

XEDATZEN DUT

Lehenengoa.- Onestea abeltzaintzako ustiattegietan plaka fotovoltaikoak jarriz autokontsumorako energia berriztagarrien erabilera sustatzeko laguntzak emateko oinarri arautzaileak (I. eranskina).

Bigarrena.- Onestea Nekazaritza Sailaren dirulaguntza hori emateko 2023. urterako deialdia. Hona hemen xehetasunak:

1. Dirulaguntzak lehia prozeduraren bidez esleituko dira, dagoen kreditua bera dela muga. Emango diren laguntzen bolumen osoak –gutxieneko zenbatekora iristen ez diren eskaerak baztertu ondoren, eta 11. artikuluan ezarritako gehieneko zenbatekoa gainditzen dutenak mugatu ondoren– dirulaguntza horietarako guztira erabiliko den zenbatekoa gainditzen badu, heinean banatuko da onuradunen artean, alegia, oinarri hauen arabera, laguntzetarako eskubidea duten onuradunen artean, eta, hala, dagozkion zenbatekoak gutxitu egingo dira.

Diruz lagundu daitekeen kostuaren ehuneko 50 izango da dirulaguntzaren ehunekoa.

Aurkeztutako eskabideek baldintza hauek bete beharko dituzte:

- Diruz lagun daitekeen gutxieneko inbertsioa 5.000,00 euro izango da espediente bakoitzeko.
- Diruz lagun daitekeen gehieneko zenbatekoa 15.000,00 euro izango da espediente bakoitzeko.

2. Eskaerak aurkeztea:

Pertsona juridikoek Arabako Foru Aldundiaren egoitza elektronikoaren bitartez <https://egoitza.araba.eus/es/-/ayudas-autoconsumo-almacenamiento-energia-renovable-procedente-de-placas-fotovoltaicas-en-explotaciones-ganaderas> edo beste administrazio publiko batzuen erregistro elektronikoetan aurkeztu behar dituzte eskaerak.

Pertsona fisikoek, berriz, egoitza elektronikoaren bidez aurkeztu ahal izango dituzte, edo Arabako Foru Aldundiaren Erregistro Orokorrean, Vitoria-Gasteizko, Guardiako eta Laudioko Ogasun Bulegoen Erregistroan edo Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16.4 artikuluan jasotako gainerako erregistroetako edozeinetan.

Arabako Foru Aldundiaren egoitza elektronikoaren zerbitzuak erabiltzeko, nahitaezkoa da modu telematikoan identifikatzea, ziurtagiri digital baten edo BAKQ sistemaren bidez, hemen: <https://egoitza.araba.eus/es/sede-electronica/conoce-la-sede/como-accedo>.

Eskaerak eskatzailearen ordezkari batek ere aurkeztu ahal izango ditu, baldin eta aurrez izapide hori gauzatzeko beharrezko baimen maila ezarri bada egoitza elektronikoan: <https://web.araba.eus/es/sede-electronica/autorizaciones>.

Arabako Foru Aldundiaren web orrian argitaratutako inprimaki normalizatuan aurkeztuko dira eskabideak.

3. Eskabideak aurkezteko epea:

Hambabost (15) egun baliodun, dekretu hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik zenbatuta; hori guztia, Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak 16.4 artikuluan ezarritakoa alde batera utzi gabe. Epearen azken eguna baliogabea bada, hurrengo egun baliodunean amaituko da.

4. Onestea 50.000,00 euro Arabako Foru Aldundiaren 2023ko gastu aurrekontuko 40101. G/41.4400/77000413 partidan.

Kreditu hori zenbateko gehigarriekin handitu ahal izango da, Arabako Lurralde Historikoko Dirulaguntzei buruzko urriaren 19ko 11/2016 Foru Arauak 21. artikuluan ezarritako mugen barruan, baita aurrekontu partidan edozein arrazoiengatik gerta litekeen kreditu gehikuntzaren bidez ere. Zenbateko gehigarri horiek, gehienez ere, hasierako zenbateko erreserbatua adina izango dira.

Hirugarrena.- Nekazaritza Saileko foru diputatuari ahalmena ematea foru dekretu hau garatu eta aplikatzeko beharrezkoak diren xedapenak eman ditzan.

Azken xedapena.- ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean foru dekretu hau.

Vitoria-Gasteiz, 2023ko maiatzaren 3a

Diputatu nagusia

RAMIRO GONZÁLEZ VICENTE

Nekazaritza Saileko foru diputatua

EDUARDO AGUINACO LÓPEZ DE SUSO

Nekazaritza zuzendaria

M^a ASUNCIÓN QUINTANA URIARTE

I. ERANSKINA

ABELTZAINZAKO USTIATEGIETAN PLAKA FOTOVOLTAIKOETATIK DATORREN ENERGIA BERRIZTAGARRIA AUTOKONTSUMITU ETA BILTEGIRATZEKO LAGUNTZAK EMAN, JARRAITU ETA KONTROLATZEKO OINARRI ARAUTZAILEAK

1. artikulua. Xedea eta lurralde eremua

Dekretu honek finkatzen ditu Arabako Lurralde Historikoko abeltzaintzako ustiategietan energia berriztagarria, kasu honetan plaka fotovoltaikoetatik datorrena, autokontsumitu eta biltegiratzeko laguntzak eman, jarraitu eta kontrolatzeko oinarri arautzaileak.

2. artikulua. Laguntzen izaera

2.1. Foru dekretu honetan ezarritako laguntzaren emakida norgehiagoka bidez izapidetuko da, deialdi bakoitzean ezarritako hautapen irizpideekin bat etorritik. Hautaketa-irizpiderik ezarri ezean, dirulaguntzaren onuradunen artean dirulaguntzen gehieneko zenbateko osoa hainbanatuko da.

2.2. Laguntza hauek bateragarriak izango dira estatuko zein nazioarteko sistema publiko edo pribatuen beste dirulaguntza batzuekin, Arabako Foru Aldundiaren nekazaritza ustiategietarako inbertsioetarako laguntzak izan ezik.

Laguntza bateragarri guztien batura ezin da izan inbertsioaren ehuneko ehuna baino gehiago. Horri dagokionez, Arabako Lurralde Historikoko Dirulaguntzei buruzko urriaren 19ko 11/2016 Foru Arauaren 18.3 artikuluan xedatutakoa aplikatuko da.

2.3. Laguntza itzuli beharrik gabeko dirulaguntzak izango dira.

3. artikulua. Laguntzen deialdia

3.1. Aurrekontu ekitaldian zehar ondoz ondoko deialdiak egin ahal izango dira, sektorearen beharrak kontuan hartuta.

3.2. Deialdi batean jasotako eskabideek hasieran esleitutako funtsen zenbatekoa gainditzen badute, kreditu handitzeak ezarri ahal izango dira.

3.3. Espediente bakarra onartuko da eskatzaile eta deialdi bakoitzeko.

4. artikulua. Onuradunak

Dirulaguntza jaso ahal izango dute abeltzaintzako ustiategien titular diren pertsona fisiko edo juridikoek, baldin eta oinarri arautzaile hauetan eta deialdietan ezarritako baldintzak betetzen badituzte.

Laguntza honen ondorioetarako, sozietate zibilak, ondasunen erkidegoak eta jaraunspen erkidegoak nortasun juridikodun erakundetzat hartzen dira.

Izatezko bikoteak ezkonduetakoen parekoak izango dira, maiatzaren 7ko 2/2003 Legean xedatutakoarekin bat etorritik.

5. artikulua. Onuradunen betebeharrak

Onuradunek honako betebeharrak izango dituzte, deialdi bakoitzean eta dekretu honetan ezarritako gainerako betekizunez gain:

5.1. Oro har:

5.1.a. Arabako Lurralde Historikoko nekazaritzako ustiategi baten titularra izatea.

5.1.b. PFEZaren edo, hala badagokio, Sozietateen gaineko Zergaren aitortzea aurkeztu izana laguntza eskatzen den ekitaldiaren aurrekoan. Zerga horiek aitortzera behartuta ez dauden pertsonen kasuan, salbuetsita daudela egiaztatzen duen agiria aurkeztuko dute.

5.1.c. Gizarte Segurantzaren erregimen egokian alta emanda egotea, nekazaritzako jarduera zein den. Gazteen kasuan, M06.1 neurriaren barruan (2015-2020 LGP) «Nekazari gazteek enpresak sortzea» edo 6961.1 esku hartzea «Gazteak nekazaritza sektorean sartzeara» (2023-2027 NPEPE) salbuetsita egongo dira betekizun hori bete beharretik.

5.1.d. Laguntza eman baino lehen, Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak eta zerga betebeharren ordainketa egunean edukitzea. Sozietate zibilaren, ondasun erkidegoaren, eraldaketarako nekazaritza sozietatearen eta titulartasun partekatuko erakundeen kasuan, egoera hori egiaztatu beharko da, bai sozietatearena, bai bazkideena edo erkideena, Gizarte Segurantzarekiko betebeharrei dagokienez.

5.1.e. Arabako Lurralde Historikoko Dirulaguntzei buruzko urriaren 19ko 11/2016 Foru Arauaren 12. artikuluan onuradun izateko ezarritako baldintzak betetzea.

5.1.f. Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen arabera sexuagatiko bereizkeria egiteagatik administrazio edo zigor zehapenik ez izatea.

5.2. Titularra pertsona fisikoa duten ustiatuek eta titulartasun partekatuko erakundeek, gainera, honako baldintza hauek bete beharko dituzte:

5.2.a. 18 urte baino gehiago eta 65 urte baino gutxiago izatea.

5.2.b. Nagusiki nekazari diharduen pertsona (NNP) izatea.

M06.1, PDR 2015-2020 (Nekazari gazteek enpresak sortzea) neurriaren bidez edo 6961.1 (Gazteak nekazaritza-sektorean sartzeara PEPAC 2023-2027) esku-hartzearen bidez instalazio-prozesuan dauden gazteek NNP betekizuna betetzen dutela ulertuko da.

Titulartasun partekatuko entitateen kasuan, eta nekazaritza ustiatuek titulartasun partekatuari buruzko urriaren 4ko 35/2011 Legearen 5. eta 11. artikuluetan xedatutakoarekin bat etorritik, kideetako batek azken bi ekitaldietako pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren (PFEZ) aitortenean oraindik nekazaritza etekinak egotzi ez baditu, joko da NNP dela beste kideak baldintza hori betetzen badu.

5.2.c. Nekazaritzako jardueraren ondoriozko erretiro pentsiorik, erabateko baliaezintasunaren edo baliaezintasun osoaren ziozko pentsiorik ez jasotzea.

5.3. Titularra pertsona juridikoa duten ustiatuek: lan sozietateak (SAL-SLL), anonimoak (SA), mugatuak (SL) edo bestelako merkataritza sozietateak, ondasun erkidegoak (CB), jaraunspen erkidegoak, sozietate zibilak (SC), luraren ustiapen komunitarioko kooperatibak (CECA), eraldaketarako nekazaritza sozietateak (SAT) eta lan elkartuko kooperatibak (CTA).

Aurreko forma juridikoetako bat hartu beharko dute, eta, oro har adierazitako betekizunaz gain, honako hauek ere bete beharko dituzte:

5.3.a. Bazkideen ehuneko 50ek, gutxienez, 5.2 artikuluko pertsona fisikoentzat ezarritako betekizunak bete beharko dituzte, eta sozietatearen kapitalaren edo banaketa kuotaren ehuneko 50, gutxienez, NNP diren kideena izan beharko da.

5.3.b. Ustiatuek elkartu bat emakume nekazaria titular duen erakundetzat hartuko da, baldin eta emakumeen partaidetza kapital sozialean edo banaketa kuotan gutxienez ehuneko 50ekoa bada.

5.3.c. Estatutuetan edo batzar orokorraren erabakiz, ondokoa xedatu beharko da: titulurik eskualdatuz gero, bermatuta geratu beharko da, konpromiso aldi, behintzat, bazkideen ehuneko 50ek, gutxienez, NNP izan beharko dutela eta sozietatearen kapitalaren edo banaketa kuotaren ehuneko 50, gutxienez, NNP diren kideena edo bazkideena izan beharko dela, salbu eta ondasun erkidegoak, sozietate zibilak eta titulartasun partekatuko ustiatuek.

5.3.d. Bazkideen partaidetzek edo akzioek izendunak izan beharko dute, eta sozietatearen xede eskusiboak, estatutuetan jasota, nekazaritzako jarduera garatzea izan beharko du.

5.3.e. Agiri publiko bidez eratu beharko dira, sozietate zibilak, jarauntsi erkidegoak eta ondasun erkidegoak barne. Eratze agiri horretan behar bezala zehaztu beharko dira forma juridikoa, gutxienerako iraupena (laguntza emateko Administrazioarekin hartutako konpromisoaren arabera), kapital sozialaren eraketa eta kudeaketan kideek duten partaidetza.

5.3.f. Jaraunspen erkidegoetan eta ondasun erkidegoetan, indibisio ituna egon beharko du, gutxienez sei urtez.

5.3.g. Kooperatibek Euskal Autonomia Erkidegoko Kooperatiben Erregistroan inskribatuta egon beharko dute.

Nekazari gazteek, M06.1 "Nekazari gazteek enpresak sortzea" (2015-2020 LGP) neurriari atxikitako laguntza edo 6961.1 "Gazteak nekazaritza sektorean sartzea" (2023-2027 NPEPE) esku hartzea baliatuz, elkartze erakunde baten bidez instalazioa sustatzen badute, erakunde mota horrentzat araututako betekizunak bete beharko dira. Gaztea baldintza horiek betetzen dituen kide gisa hartuko da, baina bere enpresa planean ezarritako epean bete edo lortu beharko ditu.

6. artikulua. Nekazaritzako ustiategiak bete beharreko baldintzak

Laguntza eskatzen duten titularren ustiategiek baldintza hauek bete beharko dituzte:

6.1. Arabako Lurralde Historikoko Nekazaritza Ustiategien Erregistroan eta Abeltzaintza Ustiategien Erregistroan (REGA) inskribatuta egon behar du, "produkzioa eta ugalketa" motaren barruan.

6.2. Ustiategiko nekazaritza jarduerak gutxienez nekazaritzako lan unitate bat (NLU) jasoko dute, honen arabera kalkulatuta: Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasun Sailburuaren 2016ko martxoaren 31ko Agindua, zeinaren bitartez finkatzen baitira, Euskal Autonomia Erkidegoko nekazaritza ustiategiei dagokienez, laborantzen marjina gordinak, nekazaritzako lan unitateak (NLU) zehazteko modulu objektiboak eta ustiategien gastu finkoen koefizienteak.

Nekazaritza sektorean lehen aldiz sartzen diren nekazarien kasuan, NLUen zenbatespena haien enpresa planean jasotakoaren arabera egingo da.

7. artikulua. Onuradunen betebeharrak

Deialdi bakoitzean eta dekretu honen babesean emandako laguntzen hurrengo kapituluetan ezarritako gainerako betebeharrak alde batera utzi gabe, onuradunek honako betebeharrak hauek izango dituzte:

7.1. Dirulaguntza ematea arrazoitzen duen helburua betetzea, proiektua egitea, jarduera gauzatea edo haren jarrera izatea.

7.2. Dirulaguntza ematen duen organoaren aurrean baldintzak eta betekizunak betetzen direla justifikatzea, baita dirulaguntza emateko oinarrian izan den jarduera egin dela eta helburua bete dela ere.

7.3. Dirulaguntza eman duen organoak egiten dituen egiaztapen jarduketa guztiak onartzea, bai eta Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Sailak eta kontrol organo eskudunek finantzak kontrolatzeko eta egiaztatzeko egiten dituztenak ere. Horrelakoetan, eskatzen zaien informazio guztia eman beharko dute.

7.4. Diruz lagundutako inbertsio bera finantzatzeko beste laguntza batzuk eskatu edo lortu direla adieraztea organo emaileari. Horiek jasoz gero, zenbatekoa eta eman zituen erakundearen izena jakinarazteko konpromisoa hartzen du.

7.5. Dirulaguntza emateko ebazpen proposamena eman aurretik, bere zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean dituela frogatzea.

7.6. Gordeta edukitzea jasotako laguntzak zertan erabili diren egiaztatzen duten agiriak, agiri elektronikoak barne, egiaztatuak eta kontrolatuak izan baitaitezke.

7.7. Jasotako funtsak itzultzea Arabako Lurralde Historikoaren dirulaguntzei buruzko 11/2016 Foru Arauaren 13. eta 17. artikuluetan jasotako kasuetan eta Foru Arau horren 35. artikuluan ezarritako kasuetan eta/edo aplikatu beharreko arauditik datorren beste edozeinetan.

7.8. Dirulaguntza emateko kontuan hartutako inguruabarren bat, subjektiboa zein objektiboa, aldatu bada, aldaketaren berri eman behar diote dirulaguntza emanda duen erakundeari.

7.9. Eskabidea laguntzaren deialdian ezarritakoaren arabera egitea.

8. artikulua. Laguntzen onuradunen konpromisoak

Laguntzen onuradunek konpromiso hauek hartuko dituzte, oro har:

8.1. Emandako dirulaguntza onartzea, dirulaguntza emateko ebazpenean ezarritako baldintzen arabera.

Laguntzaren esleipenaren jakinarazpena jasotzen duenetik hamabost egun balioduneko epean onuradunak ez badio dirulaguntzari berariaz eta idatziz uko egiten, onartu egin duela ulertuko da.

8.2. Diruz lagundutako inbertsioak ustiatzean egon beharko du eta eman zen helburu zehazterako erabilia izan beharko du gutxienez 7 urtez, ezinbesteko kasuetan izan ezik, edo deialdiak beste epe bat ezarri ezean.

8.3. Baldin eta laguntza baten ustiatze onuradunaren titulartasuna aldatzen bada, eta hartutako konpromisoak oraindik indarrean badaude, dela nortasun juridikoa duen beste erakunde batean integratzeagatik, dela nortasun juridikoa aldatzeagatik, dela jarduera uzteagatik erretiroagatik edo behar bezala justifikatutako beste arrazoiren batengatik, hartutako konpromisoak titular berriaren alde subrogatu ahal izango dira, baldin eta titular berriak laguntzak eskuratzeko aurrekoari eskatzen zaizkion baldintzak betetzen baditu eta berariaz bere gain hartzen baditu betetzeko geratzen zaizkion urteetarako, diruz lagundutako inbertsioen aprobetxamendu zuzenarekin batera, Nekazaritza Saileko titularrak foru agindu bidez baimena eman ondoren.

8.4. Honako foru dekretu honetan eta dirulaguntza emateko ebazpenean ezarritako betekizun eta betebehar guztiak betetzea.

9. artikulua. Laguntza jasoko duten inbertsioak

Dekretu honetan jasotako dirulaguntzak plaka fotovoltaikoetan inbertsioak egiteko erabiliko dira:

9.1. Proiektua diseinatze, idazteko eta zuzentzeko kostuak.

Ez da onartuko, inola ere, gastu horiek, eskatutako laguntzaren zenbatekoa baino ehuneko 4 handiagoak izatea. Espedienteko gehieneko gastua 600,00 euro izango dira.

9.2. Obrak eta instalazioak gauzatzeko kostuak, lotutako obra zibila a eta beharrezkoak diren instalazio osagarriak barne.

Gastu horiek, kostu hautagarri gisa onartuak izateko, behar bezala jasota egon beharko dute aurkeztutako aurrekontuan edo proiektuan. Inbertsio bakoitzari dagozkion atalak bereizi behar dira: instalazioa bera (plakak eta instalazioa) eta obra zibila.

9.3. Diruz lagundu daitezkeen inbertsiorako behar diren beste partida espezifiko batzuk (osagarriak edo ez), behar bezala zehaztuta.

9.4. Ez dira kostu hautagarritzat hartuko lizentzia, tasak eta zergak.

10. artikulua. Inbertsioak onesteko betekizunak

Laguntza pizgarria denez, laguntza hauen xede diren inbertsioak ezin izango dira laguntza eskabidea aurkeztu aurretik hasita egon.

Deialdi bakoitzean eta dekretu honen babesean emandako laguntzen gainerako artikuluetan ezarritako gainerako betebeharrak eta betekizunak gain, inbertsioek honako hauek bete beharko dituzte:

10.1. Ustiatzeko eta inbertsioek Arabako Lurralde Historikoan kokaturik egon beharko dute.

10.2. Diruz laguntzen den jarduketak aplikagarri zaion indarreko araudia bete beharko du. Halaber, hala eskatzen badiete, nahitaezko administrazio baimenak izan beharko dituzte, dirulaguntzak ordaindu aurretik.

10.3. Diruz lagundutako inbertsioa laguntzaren helburu zehatzerako erabili beharko da.

11. artikulua. Dirulaguntzen zenbatekoa eta muga

Deialdian beste balio batzuk zehazten ez badira, honako hauek izango dira dirulaguntza horren zenbatekoa eta mugak:

- Diruz lagundu daitekeen kostuaren ehuneko 50 izango da dirulaguntzaren ehuneko.
- Diruz lagun daitekeen gutxieneko inbertsioa 5.000,00 euro izango da espediente bakoitzeko.
- Diruz lagun daitekeen gehieneko zenbatekoa 15.000,00 euro izango da espediente bakoitzeko.

12. artikulua. Eskabideak

Eskabideak Nekazaritza Saileko organo eskudunari zuzenduko zaizkio, espedientea deialdi bakoitzean zehaztutako epean eta moduan izapidetu dezan.

Laguntza eskabidean, eskatzaileek baimena eman ahal izango diote organo kudeatzaileari beren betebeharrak egunean dituztela kontsultatzeko Arabako Foru Ogasunari eta Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiari. Hori egiteari aurka egiten badiote, dagokion ziurtagiria aurkeztu beharko dute, non zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzakoak egunean dituztela egiaztatu beharko duten.

Eskaera inprimaki normalizatuan egingo da.

Eskaera aurkeztuz gero, eskatzaileak oinarri arautzaile hauetan ezarritako betebeharrak eta konpromisoak onartzen ditu.

Inbertsioen eta, hala badagokio, proiektuaren aurrekontu xehatua aurkeztu beharko da, deialdi bakoitzean zehazten den beste dokumentazio bat aparte utzi gabe.

13. artikulua. Izapidetzea

13.1 Eskabideak aurkezteko epea amaituta, gaia dela-eta izapidetzearen ardura daukan eta deialdian jasotzen den organo egokiak bideratuko ditu espedienteak.

13.2 Espedientea izapidetzen den bitartean, laguntzaren organo izapidegileak behar dituen argibide eta agiri gehigarriak eskatu ahal izango ditu, ebazpen proposamena egiteko xedearekin beharrezko diren datuak zehaztu eta egiaztatzeko. Interesdunak ez badu ezer egiten izapide hori betetzeko, Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 57. artikuluan xedatutakoa beteko da.

13.3. Eskabide guztiak aztertuko dira, eskatzaileak onuradun izateko eskatzen diren beteki-zun guztiak betetzen direla egiaztatzeko, eta dagokion dirulaguntzaren zenbatekoa eta gastu onargarria zehazteko, deialdi eta oinarri arautzaile hauetan finkatutako irizpideen arabera. Hala, prest geratuko dira ondore horretarako sortutako kide anitzeko organoak balioetsi ditzan, eta organo horrek, hain zuzen ere, egindako balorazioa jasotzen duen txostena egingo du, onartutako proposamenak, baztertutakoak eta arrazoiak azalduta.

13.4. Eskabideetan akatsik dagoela edo daturik falta dela antzematen bada, organo instruktoreak, hala badagokio, interesa dutenei eskatuko die eskabidean galdatutako betekizunen gaineko akatsak zuzendu ditzatela edo eskatutako dokumentuak bidali ditzatela, 10 egun

balioduneko epean, jakinarazpena jasotzen den egunaren hurrengotik zenbatzen hasita. Jakinarazpen horretan berariaz adieraziko da, eskatutakoa bete ezean, eskabidea ezetsi egingo dela, urriaren 1eko 39/2015 Legeak, administrazio publikoen administrazio prozedura erkidearenak, 42. artikulua xedatutakoari jarraituz.

13.5. Dirulaguntzak emateko ohiko prozedura norgehiagoka bidez izango da. Era berean, baldintzak betetzen dituzten eskatzaile guztien artean hainbanaketa egin ahal izango da, deialdiak hala zehazten duenean.

13.6 Laguntza kudeatzean eskumena duen organoko kideek osatuko dute kide anitzeko balorazio organoa:

- Espedientea izapidetzen duen zerbitzuburuak.
- Espedientea izapidetzen duen zerbitzuko teknikari bat.
- Nekazaritzako Idazkaritza Teknikoko Zerbitzuaren burua.

13.7. Instrukzio organoak argitu eta ebatzi beharko ditu foru dekretu honetan jasota ez dauden alderdi tekniko guztiak, laguntza esleitu ahal izateko.

14. artikulua. Deialdia ebaztea

14.1. Kide anitzeko balorazio organoak proposatuta, dagokion foru organoak ebatziko ditu espedienteak, indarrean dagoen araudiaren arabera.

14.2. Administrazio publikoen administrazio prozedura erkideari buruzko 39/2015 Legearen 21. artikuluan ezarritako ondorioetarako, prozeduraren ebazpena emateko eta jakinarazteko gehieneko epea sei hilabetekoa izango da, eskariak aurkezteko epea bukatzen denetik aurrera zenbatzen hasita. Epe hori igarotakoan esanbidezko ebazpena eman eta jakinarazi ez baldin bada, administrazioaren isiltasuna ezestekoa izan dela ulertuko da, Arabako Lurralde Historikoko Dirulaguntzen 11/2016 Foru Arauaren 23.5 artikuluari jarraituz.

14.3. Deialdia ebazteko erabakiak espediente bakoitzeko ezarriko ditu onartutako, ukatutako eta atzera egindako inbertsioak. Onartutako inbertsioetarako, diruz lagundu daitekeen aurrekontua, dirulaguntzaren ehunekoa, dirulaguntzaren zenbatekoa eta urtekoak adieraziko dira.

Ebazpena ezezkoa bada, arrazoa zehaztuko da.

14.4. Laguntzaren ebazpena banaka jakinaraziko da eta honako informazio hau guztia ere adieraziko da: aurrekontu lagungarria, dirulaguntzaren ehunekoa, emandako dirulaguntzaren zenbatekoa, urtekoa edo urtekoak, ordainketa eskaera egiteko eta aurkezteko epea eta, hala badagokio, laguntzaren ezestea eta horretarako arrazoiak. Horrez gainera, ezarritako baldintzak eta dirulaguntzaren onuradunak bete beharreko konpromisoak adieraziko dira, inbertsioa egin dela egiaztatzen duen dokumentazioa aurkezteko epea zehaztuz.

15. artikulua. Dirulaguntza ordaintzea

15.1. Pertsona onuradunei diruz lagundutako inbertsioak gauzatu ondoren eta honako agiri hauek aurkeztu ondoren ordainduko zaizkie dirulaguntzak:

- Ordainketa eskaera inprimaki normalizatuaren bidez.
- Obra lizentzia, beharrezkoa bada.
- Egindako gastuak justifikatzea, dagokion faktura aurkeztuz.
- Faktura banku transferentziaren bidez ordaindu izanaren frogagarria edo merkataritzako trafiko juridikoan balio frogagarria duen agiri baliokidea.

Nolanahi ere den, 1.000,00 euroko edo gehiagoko gastuak banku transferentziaren edo bankuko beste tituluren baten bidez egiaztatuta beharko dira, urriaren 29ko 7/2012 Legeak, iruzurraren kontrako prebentzio ekintzei eta iruzurraren kontra borrokatzeko ekintzei buruzkoak, 7. artikuluan xedatutakoari jarraituz.

- Egindako obren ziurtagiria, obra zuzendaritzak emandakoa, baldin proiektua aurkeztu behar izan bada udalaren lizentzia lortzeko.

- Aurkeztutako dokumentuak egiazkoak direla dioen erantzukizunpeko adierazpena.

- Beste laguntza batzuekin finantzazio bikoitza dagoen adierazten duen adierazpena; halakorik balego, dagokion laguntza emateko ebazpenaren jakinarazpena aurkeztu beharko da.

Deialdi bakoitzean finkatu ahal izango da dokumentazio gehigarria aurkeztu behar izatea.

Laguntzak ordaintzeko agiriak aurkezteko epea laguntzaren jakinarazpenean zehaztuko da.

15.2. Dekretu honetan aurreikusitako laguntzen onuradunek enpresa kontratista adjudikaziodunen edo hornitzaileen alde laga ditzakete euren kobrantza eskubideak, halako moldez non haiek zuzenean jasoko duten ordainketa bakoitzari dagokion laguntzaren zenbatekoa.

16. artikulua. Finantzaketa

Dekretu honetan araututako laguntza publikoak Nekazaritza Sailaren aurrekontuen kontura finantzatuko dira.

17. artikulua. Emakida ebazpenak aldatzea

17.1. Dirulaguntza emateko kontuan hartutako baldintzak aldatuz gero, dirulaguntza emateko ebazpena ere aldatu ahal izango da.

Ordainketak ziurtatzeko onargarritzat edo diruz lagungarritzat jotzen diren zenbatekoak oinarri hartuta egingo dira, ordainketa eskaeraren kontrola ebazpenik gabe egin ondoren, salbu eta dirulaguntza guztiz galdu bada.

17.2. Dirulaguntza emateko eskatutako baldintzak ez badira betetzen gerora, edo inbertsioak osorik ez badira gauzatzen, onuradunak izan ditzakeen beste erantzukizun batzuk alde batera utzita, emandako dirulaguntza jasotzeko eskubidea galduko du, eta horrez gainera, jadanik jasotako dirua itzuli beharko du. Bestalde, legez ezarritako berandutze interesak ere ordaindu beharko ditu.

Hala ere, ez betetzearen ondorioz, inbertsioak partzialki ez badira gauzatu, dirulaguntza jasotzeko eskubidea galduko du, epean gauzatu ez duten zatiari dagokiona hain zuzen ere. Bestalde, inbertsioaren egiaztapenen eta inbertsioaren jasotze partzialen arabera ordainketa partzialak egin badira, behin betikotzat hartuko dira.

Halaber, jasotako kopuruak itzuliko ditu, eta dirulaguntza ordaindu ziotenetik sortutako berandutze interesa ere itzuli beharko du, azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 37.1. artikuluan ezarritako gainerako kasuetan, diruz lagundutako jardueraren edo ezarritako helburuen ez betetze osoa edo partziala barne.

17.3. Beste administrazio edo erakunde publiko nahiz pribatu batzuek xede bererako emandako dirulaguntzak lortuz gero, eta horrek oinarri arautzaile hauetan jasotako dirulaguntza bakoitzari dagokion inbertsioaren guztizko zenbatekoa gainditzea badakar, oinarri hauetako dirulaguntzen zenbatekoa proportzionalki murriztuko da.

17.4. Dirulaguntza ordaindu ahal izateko, dirulaguntzen gutxieneko zenbatekoa (deialdi bakoitzean jasoko dena) baino handiagoa izan beharko da diruz lagundu ahal den inbertsioa.

18. artikulua. Betebeharrak eta konpromisoak ez betetzea

Arabako Lurralde Historikoko Dirulaguntzei buruzko urriaren 19ko 11/2016 Foru Arauaren 13. artikuluan ezarritako betebeharrak betetzen ez badira, pertsona edo erakunde onuradunak konpromisoa hartzen du jasotako zenbatekoak itzultzeko, halakorik balego, hark zor dituen berandutze interesekin batera, inbertsioa ustiapenean nahitaez egon beharreko denboraren proportzioan, foru arau horren 35. artikuluan ezarritako prozeduraren arabera.

Ezinbestezko kausa edo inguruabar berezi gisa hurrengoak hartuko dira:

- Ekoizlea hiltzea edo luzaroan lanbiderako ezinduta egotea.
- Hondamendi natural larria, edo diruz lagundutako inbertsioari eragiten dion ustekabeko suntsipena.
- Epizootia bat izatea eta ustiategiko abere gehienei eragitea.

Onuradunak, kontuan hartzeko, ezinbesteko kausak edo salbuespenezko inguruabarrak jakinarazi behar dizkio agintaritzak eskudunari, gertakaria izan eta bi hilabeteko epean.

19. artikulua. Emandako dirulaguntzen publizitatea

Urtarrilaren 18ko 1/2016 Legeak, gardentasun eta gobernu onarenak, 17. artikuluan eta urriaren 19ko 11/2016 Foru Arauak, Arabako Lurralde Historikoko dirulaguntzei buruzkoak, 17. artikuluan xedatutakoaren arabera, laguntzak ematen dituzten organoek Arabako Foru Aldundiaren gardentasun atarian argitaratuko dituzte onuradunen zerrenda eta onartutako laguntzen zenbatekoa.

Laguntzak eta horien ondorioz jar daitezkeen zehapenak erregistro publikoetan inskribatu beharko dira, eta, ondorioz, eskabidea aurkezteak berekin dakar baimena onuradunen datuak eta aipatutako publizitatea behar bezala tratatzeko.

20. artikulua. Araubide juridikoa

Foru dekretu honetan jasotako dirulaguntzen onuradunek honako hauetan ezarritako araudiaren pean egongo dira: Arabako Lurralde Historikoko Dirulaguntzen eta Transferentzien otsailaren 7ko 3/1997 Foru Araua, Dirulaguntzen azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorra eta uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuaren bidez onetsitako arautegi aplikagarria.

Halaber, oinarri hauek idazteko, kontuan hartu dira Emakumeen eta Gizonen Berdintasun Eragingarrirako martxoaren 22ko 3/2007 Legea, 1/2023 Legegintzako Dekretua, martxoaren 16koa, emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistatik gabe bizitzeko Legearen testu bategina onartzen duena eta Emakume Nekazarien Estatu-tuaren urriaren 15eko 8/2015 Legea.